



GOZATU EUSKARA!

HAUR ETA GAZTEEN JARDUERETARAKO HEZITZAILEENTZAKO GIDA

KIROLA | KULTURA | AISIALDIA | JANTOKIA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

HAUR ETA GAZTEEN JARDUERETARAKO HEZITZAILEENTZAKO GIDA

KIROLA | KULTURA | AISIALDIA | JANTOKIA



Gida honetan euskararen erabileran eragiteko kontuan hartu beharreko zenbait irizpide proposatzen dizkizugu, baita hainbat aholku eta baliabide ere.

LEHENENGO ATALA: OINARRIZKO IRIZPIDEAK	3
ZERGATIK SUSTATU EUSKARAREN ERABILERA	3
HEZITZAILEAK GARA: HORIXE DA ABIAPUNTUA	4
ZER EGIN BEHAR GENUKE?	6
ULERTU HAIEN HIZKUNTZA-OHITURAK	10
ZER EZ GENUKE EGIN BEHAR?	11
BIGARREN ATALA: JARDUEREN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO PROPOSAMENAK	13
KIROL ENTRENATZAILEA NAIZ	13
KULTURA JARDUERETAKO IRAKASLEA NAIZ	18
AISIALDIKO HEZITZAILEA NAIZ	28
JANTOKIKO HEZITZAILEA NAIZ	36
HIRUGARREN ATALA: ZENBAIT AHOLKU ETA TRESNA	41
ZER EGIN ZAILTASUNEN AURREAN	41
BALIABIDE INTERESGARRIAK	43

LEHENENGO ATALA: OINARRIZKO IRIZPIDEAK

ZERGATIK SUSTATU EUSKARAREN ERABILERA

Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira: lagundu diezaiegun haur eta gazteei euskara asko erabiltzen.

Euskara gustuko egoerekin eta bizipen positiboekin lotu behar dute. Horretan ere lagundu behar diegu.

Haur eta gazteak gutxienez hiru hizkuntza ikasten ari dira. Ikastetxeen helburuetako bat hori da baita guraso askoren nahia ere. Baina hizkuntzak ondo ikasteko eta erraztasuna izateko asko erabili behar dira, eta askok, euskaraz ikasi arren, ez dute eskolaz kanpo berau erabiltzeko aukera handiegirik:

- Gehienen etxeko hizkuntza gaztelania da.
- Kalean, hainbat herri edo auzotan, euskararen erabilera ez da handia.
- Telebistan eta sare sozialetan ere gaztelania askoz gehiago jasotzen dute.
- Eta abar.

Lagundu diezaiegun euskara asko erabiltzen.

Gainera, euskaraz bizipenak behar dituzte. Euskara eskolarekin soilik lotzen badute, hizkuntza horrekin harremana ahula izango da: eskola ordukin soilik lotzeko arriskua dute. Egunerokotasunean euskara entzun eta erabiltzen badute, euskaraz bizipenak izango dituzte. Eta hori da bidea euskara bere egiteko: euskara ondo jakitea eta euskaraz bizipenak izatea.

Hezitzaileek asko lagun diezaiekegu bizipenak eurenganatzen, kirolean, aisian, kultura jardueretan edota jantokietan.

Euskararen erabilera sustatzea ez da zaila, aitzitik, atsegina izan daiteke. Lagunduko diegu?



HEZITZAILEAK GARA: HORIXE DA ABIAPUNTUA

Eskola orduraz kanpoko jarduera gehienak haur eta gazteentzako gustukoak izan ohi dira: lagunartean gozatzen dute, geletatik kanpo, jarduera mugituak dira eta, sarri, kanpoan egiten direnak, ludikoak.

Hortxe hainbat esparrutako hezitzaileen zeregina: lan polita daukagu eta bere izaeragatik, bizipenez betetako guneak dira.

Lau esparru hauetako jardueren oinarrietako bat balio hezitzaileak dira. Haurrek eta gazteek ondo pasatzea nahi dugu, baina baita balore jakin batzuk ikastea eta barneratzea ere: elkarrekiko errespetuz jokatzeko, materiala zaintzea, araudiak kontuan izatea, bizimodu osasuntsua sustatzea, eta abar. Haurrek eta gazteek jolastea, adieraztea, haztea nahi dugu, baina ondo jaten ikastea eta txukun jolastea ere bai. Mina hartzen dutenean lagundu egiten diegu, baina gurekiko eta beraien arteko errespetua ere lantzen dugu. Jolasean ari direnean zaintza egiten dugu, baina haiekin ere jolasten dugu eta beren garapenean laguntzen diegu.



Beraz, balio batzuetan hezteko ahalegina ere egiten dugu, eta horiek gizarteko eta ikastetxeko balioekin bat egiten dute.

Zaintzaileak edota begiraleak baino askoz gehiago gara. Baina horrela ikusten al dugu gure burua? Ez izan zalantzarik: hezitzaileak gara.

Eta euskara? Irakasleen eta gurasoen helburuetako bat ere bada hori. Eta hezitzaileak garen neurrian gure ardura ere bai. Baina erabilera behar bezala sustatzeko baliabideak eta tresnak behar dira.

Gida honekin horretan lagundu nahi dizuegu: lagungarriak izan daitezkeen aholkuak eta proposamenak aurkezten dizkizuegu.

ZER EGIN BEHAR GENUKE?

Haurrei eta gazteei **beti euskaraz egin**. Ez kontuan hartu beraiek nola erantzuten dizueten, zuek beti euskaraz egin. Oinarrizko pausoa da hori.

Ahal duzuen guztietan haiekin batera aritu eta **euren elkarrizketetan parte hartu**: elkarrizketa berri bat sortu, haiekin jolasten hasi... Modu horretan, haiekin elkarrizketan arituz, elkarrizketa hori euskarara bideratu ahal izango duzue.

Errefortzu positiboak eman: ohikoa ez den egoera batean euskaraz entzuten ditugunean... Gure jarrera errefortzu positiboak ematea bada, haur eta gazteak motibatuko ditugu eta, hala, errefortzu horiek emateko aukerak maiz aurkituko ditugu.

Argi eduki: haiek euskara gehiago erabiltzea nahi dugu. Horretarako bide onena gure zuzeneko eragina da: elkarrizketa asko sortzea eta elkarrizketa askotan parte hartzea. Gu gara eredu.

Hala, egin daitekeena zera da, egoeraren arabera, bitartekari izan eta elkarrizketak zuzendu, besteetan ereduak eman, errepikarazi edo, besterik gabe, elkarrizketan sartu eta euskarara ekartzea lortutakoan, irten.



Elkarrizketetan eragin. Lagundu gurekin eta beraien artean euskaraz egin dezaten.

Gurekin	Gure laguntzaz	Gure eraginez
• Yo no quiero jugar a pillar • <i>Ez duzu harrapaketan jolastu nahi?</i> • Ez • <i>Ez dakit ba...</i> • <i>Ez duzu ezer egin nahi? Edo ez duzu harrapaketan jolastu nahi?</i> • Ez dut harrapaketan jolastu nahi. • <i>Bale! Orduan zertan? Lasterketetan?</i> • Ba, lasterketetan! • ...	• ¡Me han empujado al agua! • Te has caído • No, me has empujado • <i>Zer gertatu da?</i> • Me ha empujado y me he caído al agua • <i>Bultza egin zaitu?</i> • Bai. Bultza egin nau! • <i>Bultza egin diozu?</i> • Ez! Erori da • Gezurra! • <i>Tira, lasai. Badakizue zer, orain ikusiko dugu nork egiten duen uretara saltorik handiena. Gora goraaa,, banoa!!</i> • Gora gora, banoa!!	• Los de Santiago se van a hacer puenting • Yo no voy ni loco, qué chungo! • <i>Puenting egitera doaz? Nora?</i> • Murillora uste dut • <i>Eta zer, ez zarete animatuko?</i> • ¡Qué dices! Ni ez! • Ba egongo da guay, goitik behera salto egitea. • Bai zera! Eta gero hor, zintzilik... • Nik egingo nuke • <i>Animatu ba!</i> • ...

Elkarrizketetan eragin. Lagundu gurekin eta beraien artean euskaraz egin dezaten.		
Gurekin	Gure laguntzaz	Gure eraginez
• Pásame el balón. • <i>Baloia nahi duzu?</i> • Bai. • <i>Esan ba: Pasa baloia!</i> • Pasa baloia! • <i>Tori ba. Orain zuk beste bati pasa.</i> • ...	• <i>Zer gertatu da?</i> • Ha sido falta. • No, ha sido buena. • <i>Zer gertatu da?</i> • Que ha sido falta. • Ha dado en la chapa. • Txapa izan da? • Ez! • <i>Nola izan da ba?</i> • No ha sido falta. • <i>Ez da falta izan? Ba esaiozu: ez da falta izan, ona izan da.</i> • Ez da falta izan, ona izan da. • Falta izan da. Nik ikusi. • <i>Zuk ikusi duzu falta izan dela? Begira, hoberena buelta egitea izango da.</i>	• Casi me caigo en la última valla • Ya lo he visto. ¡Qué librada! • <i>la erori al zara?</i> • Azken hesia ukitu dut eta ia erori naiz. • <i>A ze ikara, ezta?</i> • Ba bai. Nik ikusi dut eta uste nuen eroriko zela? • Baina normalean ez zait gertatzen. • Niri ere ez, oso ondo egiten dugu. • <i>Eta gero eta azkarrago!</i> • ...

Elkarrizketetan eragin. Lagundu gurekin eta beraien artean euskaraz egin dezaten.		
Gurekin	Gure laguntzaz	Gure eraginez
• No me sale • Zer da no te sale hori ba? Ezin duzu? Esan ba ezin duzula! • Ez. Ezin dut. • Zertan ez duzu asmatzen? • Pues con este acorde. Beti gaizki egiten dut. • Akorde hau zaila egiten zaizu? Begira, frogatu horrela... • A bai! Horrela ondo. • Primeran.	• Nola egin duzue? • Yo salgo de allí, y ella de esa puerta • ¡Pero yo prefiero salir de aquí! • Ea ba. Zuk nahiago duzu hemendik atera? • Bai. • Ba esaiozu! Nahiago dut hemendik atera. • Nahiago dut hemendik atera. • Eezzz! Handik hobe da! • Zer iruditzen zaizue froga egiten badugu? • Ados!	• ¡Qué bonito te ha quedado el dibujo! • ¿Sí? Eskerrik asko! • Zer? Marrazki polita baietz? • Ba bai. Asko gustatzen zait. • Erakutsiko diozu nola egin duzun? • Noski! Begira, aurrena... • Primeran! Zuk lagundu eta ni hemendik ibiliko naiz laguntzeko.

Ahalegina eskatu	Errefortzu positiboak eman
Aizue, zergatik ez gara guztion artean euskaraz egiten saiatzen? Nik lagunduko dizuet eta ziur denon artean lortuko dugula!	Ze poza ematen didan zuek euskaraz entzuteak! Benetan! Gero eta hobeto egiten duzue gainera, ze ongi! Segi horrela!
Badakit zuetako batzuentzat gaztelaniaz egitea errazagoa dela, baina Gaztelekuan euskaraz jardun nahi dugu. Erronka gisa hartu eta saiatuko gara? Ni laguntzeko prest nago!	Aizu! Zuri lehen euskaraz aritzea gehiago kostatzen zitzaizun, sumatzen da bai, ahalegina egin duzula. Ongi!



Begiratu lorpenei, eta ez muga edo zailtasunei

Euskaraz adierazteko erraztasunik ez duten haur eta gazteen kasuan, gure laguntzaz eta eraginez bada ere, gurekin euskaraz egitea eta batzuetan haien artean euskaraz egitea lortzen badugu, primeran! Ahalegin bat eskatzen digu, baina ez al da lorpen bikaina?.

Eta euskaraz aritzeko gaitasun egokia izanda ere, haien artean gaztelaniaz egiteko ohitura dutenen artean jardueraren hainbat egoeratan euskaraz egitea lortzen badugu... Hori ere ez al da lorpen ederra? Agian ez ditugu hizkuntza-ohiturak aldatuko, baina euskara asko eta gustura erabiltzen lagunduko diegu.

ULERTU HAIEN HIZKUNTZA-OHITURAK

Hainbat haur eta gaztek gaztelaniarako joera dute: ez da moda kontua eta normaltzat hartu daiteke. Askoren ama-hizkuntza gaztelania da eta gehienen kasuan inguruneak (auzoak, hiriak...) nagusiki gaztelania

eskaintzen die. Euskaraz ikasiarren erraztasun eta aberastasun handiagoa dute gaztelaniaz. Beraz, testuingurua kontuan hartzen badugu, elkarrekin hizketan edota jolasean ari direnean oso normala da joera hori. Ez da ona edo txarra, nahiko logikoa den egoera bat da.

Horregatik da garrantzitsua hezitzaileen jarrera: euskara asko erabiltzen laguntzea eta erabilera hori errefortzu positiboekin lotzea. Argi izan helburua gurea dela, hezitzaileona. Haurrek eta gazteek ez dute erabilerarekiko interes berezirik izan behar. Guk lagundu behar diegu, ahalik eta modu natural, eroso eta atseginenean euskaraz egiten.

Erabilera indartu nahi dugu eta euskararekin harreman handia eta positiboa eskaini nahi diegu. Horretarako estrategia egokiak erabili behar dira, eta badaude erabili behar ez genituzkeen estrategia batzuk ere. Horrelako estrategiekin ez da lortzen euskara gehiago erabiltzea eta gainera hizkuntzarekin harremana ez da positiboa.

ZER EZ GENUKE EGIN BEHAR?

Ez erabili *Egin euskaraz!* edo antzeko esaldirik.

Ez kargu hartu guk euskaraz egitea nahiko genukeen egoera batzuetan ez badute egiten: ez errudun sentiarazi.

Hizkuntza kontuetan behintzat, ez zigorrik eta ez mehatxurik. Ez dugu ezer aurreratuko.

Ez zuzendu: komunikatzen badira, balio du. Ez eman garrantzia handiegirik zuzentasunari: asko eta gustura erabiltzen badute hobetuko dute, baina ez badute erabiltzen ez dute inoiz hobetuko. Gure ardura asko erabiltzen laguntzea da, eta erabilera hori sentsazio eta bizipen positiboekin lotzea. Bi gauza bai egin ditzakezuela:

- Zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizute, edo azalpenak ematen ahalegintzen ari direnean zailtasunak badituzte, laguntza eman.
- Gaizki esan duten hori guk zuzen errepikatu. Eredua emango diegu baina ez diegu errepikaraziko eta ez diegu hori gaizki zegoela esango.

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuena. Hau da: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola, horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.

• Ni baloia bota nahi. Nahi dut bota... bota... • Tiro egin nahi duzu? Saskira bota nahi duzu? Nik baloia saskira bota nahi dut. Zuk ere bai? • Bai. Nik baloia saskira bota nahi. • Ba bota ba! • Baina Ane ez pasatzen! • Anek ez dizu pasatzen? Hau da hau. Eskatuko diogu? Ane! Pasa baloia! • Ane! Pasa baloia!	• Gaur egin nire record. • Gaur errekorra egin duzu? Markak hautsi dituzu? • Bai. 50 bular egin errekorra. • A bai? Errekorra egin duzu 50 metro bularreko frogan? Eta zer denbora egin duzu? • Bat minutu. • Minutu batean egin duzu? Zorionak! Oso ondo!
--	---

• Joan nahi dute gero a... a... egitera paperarekin... • Gero eskulanak egitera joan nahi duzu? • Bai. Gero eskulanak egitera joan nahi dut. • Primeran. Baina ondo bazkaldu behar duzu aurretik. Ados? • Bai. Guztia jango dut.	• Nire arrainak dauka huesoak • Hezurak dauzka arrainak? Eta kendu dizkiozu? • Bai. • Arrainak hezurak baldin badauzka kendu egin behar zaizkio. Eta goxoa dago? • Bai. Oso goxoa.
--	--

BIGARREN ATALA: JARDUEREN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO PROPOSAMENAK

Irizpide orokorrez gain, arlo bakoitzak bere berezitasunak izaten ditu eta, horrek, jardueren dinamika aldatzen du: jarduera gela itxi batean den edo ez, banakakoa edo taldekoa den... Horiek guztiak kontuan hartuz, hona arlokako zenbait aholku eta proposamen.

KIROL ENTRENATZAILEA NAIZ

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuena. Hau da: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada: hezitzaile berritsuak izango gara.

BALIATU JARDUERAREN UNEAK

Baliatu jardueraren uneak elkarriketak sortzeko eta haien arteko elkarriketak bideratzeko. Kontuan hartu atal bakoitzean zer nolako dinamika garatzen den eta horren arabera, elkarriketa batzuk edo besteak sustatu.

- Harrera
- Beroketa eta luzaketak
- Saioa bera
- Lasaitzea

Harrera

Bakarkako elkarriketarako une bikaina da, haurrak banaka edo binaka hurbiltzen baitoaz.

- *Kaixo lker, zer moduz?*
- *Ongi!*
- *Aurrekoan zer, piper?*
- *Bai, amarekin joan nintzen.*
- *Amarekin? nora?...*

Hizkuntzaz gain, haur eta gazteekin harremanak estutzeko baliagarri izango zaizue.

Beroketa eta luzaketak

Beroketak eta luzaketak: taldeko elkarriketak eragingo ditugu batez ere, denak ariketa bera egiten ariko baitzarete.

- Beroketa ondo egin behar da!
- ¡Qué vamos a hacer luego?
- Zer egingo dugun ondoren? Zer iruditzen zaizu? Zer egin nahi duzue?
- Partida bat.
- Eta zergatik ez jolas bat? Norbaitek egin nahi luke jolas bat?
- Nik bai!
- Zein jolas gustatzen zaizu?
- Kantxa osotik baloia pasatzen eta elkar harrapatzen ibiltzea.
- Baina hori askotan egin dugu!
- Hori! Hobe partida!
- Eta beste jolas bat proposatzen badizuet?
- Bale!
- ...



Saioa bera

Une hau izan liteke elkarrizketak sortzeko zailena, haur eta gazteak partidan edo ariketan erabat sartuta baitaude eta jokaleku eremua ere zabala bada, oihuka ari beharko genuke. Ez estutu, baliatu errutina linguistikoez eta animo zein bestelako leloez.

Hori bai, haiekin batera saioan ari bazarete, inguruan dituzuenekin elkarrizketak bidera ditzakezue.

Errutina linguistikoak: aurretik ezartzen diren eta saioan zehar behin eta berriz errepikatu behar diren esaldi edo elkarrizketak. Edozein jardueretan txertatu daitezke. Erraza da errutinak sortzea. Adi! Derrigorrezkoa izan behar du esaldia horiek erabiltzea.

Erreleboak ematerakoan. Erreleboa ematen duenak: Zure txanda!

Erreleboa hartzen duenak: Bai, banoa ziztu bizian!

Baloia pasatzerakoan: Ander, zuretzat! Bai! Harrapatu du! Idoia zuretzat! Bai harrapatu dut!

Lortutako gola edo puntuak kontatzeko: A ze gola!-A ze saskiratzea!-A ze tantoa! apuntatu hau!, merezi al du? (*apuntatzen duenak*), bai, merezi du!

Lasaitzea

Lasaitzea: ez da kirol jarduera guztietan egiten, baina euskara erabilera sustatzeko eta bestelakoak lantzeko une apropos aproposa da. Etxera joan aurretik, taldea bildu eta saioan zehar landutakoez eta gertatutakoez hitz egin.

- *Ulertu da gaur azaldutako ariketa berria? Zer iruditu zaizue?*
- Bueno! Ez da erraza!
- Fijo! Honek gaizki egin du!
- Ba zuk ere ez duzu oso ondo egin!
- *Aizue! Konturatu naiz zerbaitez. Zer pasa da zuek bion artean, zein arazo izan duzue?*
- Ba ez nuen asmatzen eta hau adarra jotzen!
- Baina txantxa zen! Gero lagundu dizut egiten.
- Egia. Eta ondo egin dut.
- Gutxi gorabehera!
- Ados. Hurrengoan seguru errazago egingo duzuela.



KULTURA JARDUERETAKO IRAKASLEA NAIZ

ANTZERKI IRAKASLEA NAIZ

Antzerki jarduerak aparteko jarduerak dira euskararen erabilera sustatzeko, izan ere, jardueran bertan hizkuntza erabili behar baitute berau garatu ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Haien artean euskaraz egin dezaten edo guk haiei lagundu ahal izateko ezin aproposa-
goak dira.

Ondorioz, hezitzaileok euskararen erabilera sustatzaile gisa dugun rola berezkoa izango da. Hala ere,

- Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuena. Hau da: elkarrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa den ala ez.
- Baliatu jarduera: antzeztan ari zarete! Nabarmendu dena!

Gorputz adierazpena eta mimika erabili	Jokatu ahots tonuarekin
Ulertzeko zailtasunak dauzkaten partaideak badaude, erabili gorputza ahoz diozuna gorputz hizkerarekin sendotzeko. • <i>Gaur aurpegi espresioa landuko dugu: negarra, irria, tristura, poz izugarria, haserrea, nola adierazi?</i> Eta hori diogun bitartean, keinuz negarra, irria, tristura... antzeztuko ditugu.	Gorputzaz gain, ahots tonuaz ere asko adieraz dezakezue: • Errefortzu positiboak ematerakoan: <i>Biiiiiaaaaaaiinnn!!!!</i> • Gure bidez elkarrizketak bideratzean: <i>Zein paper nahi duzu, amona xaharrarena edo O-TSO-A-RE-NA! Otsoarena! Otsoarena nahi duzu? Bai! otsoarena nahi dut!</i>

Jarduera euskararen erabilera moldatu

Antzerki saioa euskararen erabilera moldatzea oso erraza da. Adibidez:

- Eskultura sortzaileak: partaide bati irudi bat proposatu eta honek besteei aginduak eman beharko dizkie euren gorputzez eskultura hori bera sor dezaten. *Urko zu etzan, Nerea zu jarri ezkerretan eta belaunikatu. Manex, zuk zabaldu hankak eta...*
- Bat-bateko antzeztan: partaide batek kontatzen duena besteek une horretan bertan antzezteak: *Hiri handi bateko kale estu batean, hiru mutikoz osatutako taldea doa elkar zirikatzen eta irrika. Pare pare tragedun gizona agertzen da, eskutan zakur txiki bat daramala...*





DANTZA IRAKASLEA NAIZ

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuena. Hau da: **elkarrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.**

Horretaz gain, baliatu jardueraren uneak elkarrizketak sortzeko eta haien arteko elkarrizketak bideratzeko. Kontuan hartu atal bakoitzean zer nolako dinamika garatzen den eta horren arabera, elkarrizketa batzuk edo besteak sustatu.

- Harrera
- Beroketa eta luzaketak
- Saioa bera
- Lasaitzea

Harrera

Bakarkako elkarrizketetarako une bikaina da, haurrak banaka edo binaka hurbiltzen baitoaz.

- *Kaixo Ane, zer moduz? Aho zabalka zatoz*
- Bai, nekatuta
- *Gauean ez duzu lorik egin edo?*
- Oso gutxi
- *Eta hori?*
- Nire anaia txikia gau osoan negarrez ibili da eta...

Hizkuntzaz gain, haur eta gazteekin harremanak estutzeko baliagarri izango zaizue.



Beroketa eta luzaketak

Beroketak eta luzaketak: taldeko elkarrizketak eragingo ditugu batez ere, denak ariketa bera egiten ariko baitzarete.

- *Lurrean eseri, hankak luzatu eta bizkarra jaitsi*
- *¿Vamos a aprender un nuevo baile?*
- *Zer nahiago duzue, dantza oso bat ikasi edo pausoak?*
- Nik pausoak!
- *Eta gero zer?*
- Ba pauso horiekin guk koreografia muntatu
- Ba ez dakit, horrela zerbait modernoa, taldean...
- Eta...

Saioa bera

Une hau izan liteke elkarrizketak sortzeko zailena, haur eta gazteak dantzan erabat sartuta baitaude. Ez estutu, baliatu errutina linguistikoez eta animo zein bestelako leloez: *astindu gorputzak! goazen denok batera! bikain ari gara! Askatu hankak!*

Errutina linguistikoak: aurretik ezartzen diren eta saioan zehar behin eta berriz errepikatu behar diren esaldi edo elkarrizketak. Edozein jardueretan txertatu daitezke. Erraza da errutinak sortzea. Adi! Nahitaezkoa izan behar du esaldi horiek erabiltzea.



Lasaitzea

Lasaitzea: ez da dantza saio guztietan egiten, baina euskara erabilera sustatzeko eta bestelakoak lantzeko une apropos aproposa da. Etxera joan aurretik, taldea bildu eta saioan zehar landutakoez eta gertatutakoez hitz egin.

- *Ez da erraza sagar dantza e!*
- Joe! Lio bat da
- Ya! Sagarrak gora sagarrak behera! Puf!
- *Aizue! eta zer pasatzen da kabriolekin? Erlaxatu eta jada ez dituzue egiten!*
- Niri hankak trabatzen zaizkit, oso zaila da!
- Hori abarkak handiegi dauzkazulako da
- Bai zera! Zuk ongi daukazu eta zuri ere ez zaizu ateratzen
- Nola ezetz!
- *Lasai, abarka handi eta guzti, ikusiko duzue nola lortuko duzuen!*



MUSIKA IRAKASLEA NAIZ

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarritzkoena eta garrantzitsuenak. Hau da: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.

Saioak bakarkakoak badira

Nahitaez bakarkako elkarriketak sustatuko ditugu eta partaidearen hizkuntza maila aintzat hartuta jokatu dugu: gure bidez edo gure laguntzaz. Gogoratu:

- Beti euskaraz hitz egin.
- Jokatu hezitzaile berritsu gisa, sortu elkarriketak.
- Ereduak eman eta baita errefortzu positiboak ere.
- Hizkuntza errutinei arreta jarri.



Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota eguneko jarduera antolatuetan hizkuntza errutinak txertatu ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat momentutan erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoeretarako hizkuntza-errutina adibideak:

- Pieza hasterakoan: *Belarriak erne? Eskuak prest? Goazen!*
- Erritmoarekin arazoak daudenean: *pon-pon ez zain egon...*
- Partiturari buelta emateko: *adi... bira hori! Azkena, ihes joan dena*
- ...

Saioak taldean badira:

Banakoekin elkarrizketak sortzeaz gain, ahalegindu beraien arteko elkarrizketa askotan parte hartzen eta euskaraz egin dezaten laguntzen.

Elkarrizketetan eragiten

- Utzi txutxu-mutxuak eta goazen lanera. Zertaz ari zineten? A bai? Eta saio hori telebistan eman zuten? Nork ikusi zuen?...
- Nork egin nahi du zuzendari lana? Zuek biok? Mikel, azaldu iezaiozu Ainarari zuk zergatik nahi duzun. Eta gero zuk erantzun, ados?
- Hirunaka jarri eta letra honi doinua jarri behar diozue. Nahi baduzue doinu ezagun bat eta besteak asmatu. Ni taldez talde ibiliko naiz laguntzen. Aurrera ba! Zuek zer egingo duzue, asmatu edo ezagun bat aukeratu? A bai? Zergatik? Eta denok ados zaudete? Ondo ba, segi horretan eta berehala nator pixka bat laguntzera.
- Itxoin niri! Zuekin batera aterako naiz gaur. Goazen ba. Nora zoazte orain?
- ...



ASIALDIKO HEZITZAILEA NAIZ

LUDOTEKAN ARITZEN NAIZ

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuen. Hau da: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.

Jarduerak programatzerakoan euskararen erabilera kontuan hartu

Euskara sustatzeko jarduerak proposak

Zenbait jardueretan hizkuntza erabili behar dute jarduerak bera aurrera eramanez ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Haien artean euskaraz egin dezaten edo guk beraiei lagundu ahal izateko ezin proposagoak dira. Adibidez:

- Antzerki saioak
- Irratsaioak
- Kantaldiak, karaokea
- Grabazioak

Ludotekako programazioa lantzean kontuan izan horrelakoak ere txertatu ditzakezuela.

Hizkuntza-jolasak

Hizkuntza-jolas moduan hartu ditzakegu jolasean bertan hizkuntza erabili behar denean. Hainbatetan abesti bidezkoak izaten dira.

- Asmakizunak, hitz kateak... Eskulanetan ari bagara, tarte horretan asmakizunetara ere jolas dezakegu.
- Abestiak dituzten jolasak, hainbatetan eta txandaka errepikatzen diren abestiak... Ehunka ditugu horrelakoak! Nik daukat etxetxo bat, Trikitixa xa xa, Ikusi ikusi han...

Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota ludotekako jarduerak antolatuetan hizkuntza errutinak txerta ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat momentutan erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoeretakako hizkuntza-errutina adibideak:

- Ludotekara iristen direnean hasierako harremanerako errutina: *Begira nor etorri den! Arratsaldeon Amaia!- Arratsaldeon!- Pozik zatoz?- Jolasteko gogoz!...* Eta ondoren hasiko litzateke elkarriketa normala.
- Jardueraren amaieran abesti bat kantatzea: *Ludotekan, pasatzen dugu primeran!// Ludotekan, mila jostailu aukeran!*

Jarduerak antolatuetan txerta ditzakegun hizkuntza-errutinen adibideak:

- Jausgailuarekin jolasean gailtza eta aginduak emango ditugu: *makarroiak gustuko dituenaz azpila! Sartu direnei galdera gehiago egingo dizkiegu: makarroiak nola gustatzen zaizkizu? tomatearekin eta txorizoarekin! Eta gero haurrak jarriko ditugu agintzen eta prozedura bera erabili behar dute.*
- Eraikuntzako jolas bateko piezak bata besteari gainean jarri behar dituzte ahalik eta dorre handiena egin arte. Pieza jarri behar duenak beti esan behar du: *Nire txanda! Baietz ondo jarri eta ezetz erori!* Besteek nahi dutena erantzungo dute. Pieza jartzean: *Ikusten! Artistak egin du bere lana! Nor izango da hurrengo artista? Pieza bat hartu eta beste bati emango dio.* Honek prozesua eta esaldiak errepikatuko ditu.

Nahi adina errutina sortu daitezke. Erraza da! Eta nahi dugunean aldatu edo kendu eta berriak sartu ditzakegu.

Hizkuntza-paisaia eta girotea

Ludotekan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Zintzilikatu marrazkiekin eta euskarazko esamoldeekin errotuluak, edo hurrekin batera egin eta horiek jarri. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei, eta denbora tarte bat pasa ondoren, aldatu. Musika asko erabili. Abestiak ikasi eta abestu, karaokeak egin... Eta musika jarri hainbat tarteretan: jarduerak hasi aurretik, amaieran, jardueran zehar tarteren batean...



UDALEKUETAN BAZABILTZATE

Udalekuetan, itxietan batez ere, bizipen eta jarduera guztiek beste intentsitate bat hartzen dute, handiagoa. Aparteko jarduerak dira euskara sustatzeko.

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzitsuen. Hau da: elkarrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.

Jarduerak programatzerakoan euskararen erabilera kontuan hartu

Euskara sustatzeko jarduera aproposak

Zenbait jardueratan hizkuntza erabili behar dute aurrera eraman ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Haien artean euskaraz egin dezaten edo guk haiei lagundu ahal izateko ezin aproposagoak dira. Adibidez:

- Antzerki saioak
- Irratsaioak
- Kantaldiak, karaokea
- Gau-beiletako aurkezpena talde bati ematea
- Grabazioak

Udalekuetako programazioa lantzean kontuan izan horrelakoak ere txertatu ditzakezuela.

Hizkuntza-jolasak

Hizkuntza-jolas moduan hartu ditzakegu jolasean bertan hizkuntza erabili behar denean. Hainbatetan abesti bidezkoak izaten dira.

- Asmakizunak, hitz kateak... Ibilaldi batean, eskulanetan ari garenean eta beste hainbat tartetan asmakizunetara ere jolas dezakegu.
- Abestiak dituzten jolasak, hainbatetan eta txandaka errepikatzen diren abestiak... Ehunka ditugu horrelakoak! Sardina bat, Lehoi baten bila noa...
- Hizkuntza jolasak: *hitz debekatua, ipuin eroak...*
- Mezuen kutxatila; *postontzi hitzontzia*
- Lehiaketak: *maitasun eskutitzena, piropoena, txisteena, asmakizunena...*
- Udalekuetako eta taldeko ereserkia sortu
- - ...

Programazioren barruan, jarduera batzuk horiek izan daitezke. Horietako hainbat ziur egin izan dituzuela, baina programazioa lantzerakoan kontuan izan komenigarria dela egunero tarte bat gutxienez ematea. Oso egokiak dira Udalekuetarako!

Hizkuntza errutinak

Egunero errepikatzen diren egoeretan edota eguneko jarduera antolatuetan hizkuntza errutinak txertatu ditzakegu. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat momentutan erabiltzea ziurtatzen dugu.

Egunero errepikatzen diren egoeretarako hizkuntza-errutina adibideak:

- *Lotarako orduan: Gabon! Ipurdia estali eta lo on! Eta bestela, hor konpon!*
- *Jarduera bat azaldu nahi dugun bakoitzean: Erne begi belarriak, gu ez gara zuek bezain aspergarriak.*

Jarduera antolatuetan txertatu ditzakegun hizkuntza-errutina adibideak:

- Igerilekuan jolas batzuk egitera goaz. Uretara salto egin eta beste aldera iristean erreleboa eman behar dute. Salto egin aurretik: Gora bihotzak! Oihukatu behar dute. Erreleboa ematera doazenean. Heldu goiari! Guztiek berdin egin behar dute.
- Baloi batekin jolasean ari gara. Borobilean jarrita eta eskuz esku pasatzen. Pase bakoitzaren ondoren guztiok pauso bat atzera egin behar dugu, gero eta zailagoa izan dadin. Pasea ematen duenak: *Tori Eneko. Harrapatuko duzu? Baloia hartzen duenak: Bai! Harrapatu dut. Honek hurrengoari: Tori Izaro. Harrapatuko duzu? Bai...*
- Animoak emateko leloak landuko ditugu. Talde bakoitzak bereak.

Nahi adina errutina sortu daitezke. Erraza da! Eta nahi dugunean aldatu edo kendu eta berriak sartu ditzakegu.

Hizkuntza-paisaia eta girotea

Udalekuetan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Musika asko erabili. Abestiak ikasi eta abestu, karaokeak egin... Eta musika jarri hainbat tarteetan: jarduera hasi aurretik, amaieran, jardueran zehar tarteren batean... Hezitzaileok asko abesten baduzue, haiek ere asko abestuko dute!

Zintzilikatu marrazkiekin eta euskarazko esamoldeekin errotuluak, edo hurrekin/gazteekin batera egin eta horiek jarri. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei.



GAZTELEKUAN BAZABILTZATE

Ez da gauza bera hurrekin edo gazteekin aritzea. Azken hauen kasuan, hizkuntza-ohiturak nahiko finkatuta egon ohi dira eta adinagatik ere, euren izaera kontuan hartu beharko dugu. Hala;

- Gazteekin beti euskaraz: ez ahaztu hezitzaile berritsuak zaretela, eta haietako batzuk agian zuei gazteleraz egin arren, hizkuntza ohiturak hasieratik finkatzea garrantzitsua dela eta, horregatik, zuek beti euskaraz egin.
- Ahalegina eskatu eta beraiekin hitz egin: argi azaldu euskaraz egitea nahi genukeela eta horretan ahalegintzea nahi genukeela. *Gaztelekuan euskaraz aritu nahi dugu hau gune euskalduna izan dadin eta badakizue hezitzaileak hala egiten dugula, baina zuen laguntza behar dugu dena borobiltzeko. Zuetako batzuentzat ez da erraza, badakigu, eta gu prest gaude laguntzeko. Guztion artean lortu baietz!*

- Erronka gisa planteatu eta laguntza behin eta berriro eskaini: *Aurrekoan film labur bat euskaraz sortzea eta grabatzea lortu genuen, baietz aurtengo beldurraren pasabidea ere euskaraz egin! Nik eredu eta erreferentzia lagungarri batzuk eskuratu ditut! Goazen ba!*
- Ahalegina eskatu bai, gure eraginaren bidez lagundu ere bai, eta nola ez, ahalegina baloratu ere bai. Beraietako hainbatentzat errazagoa eta erosoagoa bada guztia gaztelaniaz egitea, euskara erabiltzeko ahalegina egiten dutenean baloratu ahalegin hori eta errefortzu positiboak eman (zoriondu, guretzat zein pozgarria den esan...).

Jarduerak programatzerakoan euskararen erabilera kontuan hartu

Euskara sustatzeko jarduera aproposak

Zenbait jardueretan hizkuntza erabili behar dute aurrera eraman ahal izateko. Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Haien artean euskaraz egin dezaten edo guk beraiei lagundu ahal izateko ezin aproposagoak dira. Adibidez: antzerki saioak, irratsaioak, kantaldiak, karaokea, grabazioak... Gaztelekuko programazioa lantzerakoan kontuan izan horrelakoak ere txertatu ditzakezuela.

Hizkuntza-jolasak

Hizkuntza-jolas moduan hartu ditzakegu jolasean bertan hizkuntza erabili behar denean: asmakizunak, txisteak, hitz kateak... Lehiaketak antolatu ditzakegu edo programazioaren barruan horiekin zerikusia duten jarduerak sartu. Lehiaketak: asmakizunak, txisteak, esamoldeak (piropoak, animoak...), hitz-kateak... Jardueran txertatzea: mezuen kutxatila, postontzi hitzontzia...

Hizkuntza-paisaia eta girotzea

Gaztelekuan euskarak presentzia handia izan dezan zaindu, euskaraz blaitu gunea.

Musika asko erabili. Musika jarri hainbat tarteetan: jarduera hasi aurretik, amaieran, jardueran zehar tarteren batean... Kontua ez da musika guztia euskaraz jartzea, baina bai euskarazko musikari tarte duina egitea.

Zintzilikatu marrazkiekin eta euskarazko esamoldeekin errotuluak, edo gazteekin batera egin eta horiek jarri. Askotan egin erreferentzia bertan agertzen diren esamoldeei, eta denbora bat pasa ondoren, aldatu. Hizkuntzarekin loturako esamoldeak izan daitezke (adarra jotzeko esamoldeak, aspertuta gaudenean erabiltzekoak...) edo gazteen interesekoak izan daitezkeen gaiekin lotutakoak (musikarekin, kirolarekin...).



JANTOKIKO HEZITZAILEA NAIZ

Hezitzaile berritsu gisa aritu. Hori da oinarrizkoena eta garrantzi-tsuena. Hau da: elkarriketa asko sortu eta elkarriketa askotan parte hartu. Banakoak eta taldekoak. Euskara asko erabiltzen lagunduko diegu, eta ez zaigu axola horretarako gure zuzeneko eragina beharrezkoa bada, hezitzaile berritsuak izango gara.

HIZKUNTZA PAISAIA

Euskararekin harremana lantzeko modu bat paisaia linguistikoa zaintzea da. Jantokiaren kasuan: marrazki eta esaldiekin kartelak. Kartel horiekin jantokia girotzen dugu eta euskarak lekua hartzen du. Lagungarria da bereziki tarteka kartelak aldatzen baditugu. Urte garaiarekin lotutako esaldiak izan daitezke, edo janariekin, edo jateko moduarekin...

Esaldi batzuk aukeratzen badituzue, hiru modu behintzat badituzue pres-tatzeko:

- Ikasleekin eskulanak egin eta beraiekin batera prestatzea.
- Hezitzaileok prestatzea.
- Ikastetxeko arduradunei eskatzea.

Hona hainbat adibide:

Umore puntu bat duten esaldiak
Guri eman kroketak, eta ez etxerako ariketak!
Goseak erremedio bakarra du: jatea.
Gustatzen zaigu arraina, alajaina!
Entsalada jan eta ibili dantzan.
Ikusten ditudanean dilistak, ateratzen zaizkit begietatik txispak.
Zopa bero? Ahora gero.

Umore puntu bat duten esaldiak

Makarroiak eta tomatea, ba al dago zerbait hobe?
Zarata zikina. Hau buruko mina!
Burrunba eta zarata, jantokia baino honek ematen du batukada.
Isiltasuna mesedez, janariak zer esaten duen entzun nahi dut eta!

Janarien eta jateko tresnen argazkiak eta izena ondoan

Makarroiak, zopa, arroza...
Koilara, platera...

Ikasleekin erabiltzen ditugun esaldiak

Tripazorriak ditut!
Gose naiz!
On egin. Eskerrik asko eta berdin.
Mesedez, gehiago.
Jan ganoraz.
Bapo nago.
Primeran dago.
Bigarrena jan dezaket? Lehenengo amaitu aurrena!

EGUNEROKO ESAMOLDEAK: ERRUTINA LINGUISTIKOAK

Errutina linguistikoek laguntzen dute euskararen erabilerarekin. Ikasleek euskara asko entzutea nahi dugu eta horrekin batera euskara erabiltzea. Esaldi batzuk askotan entzuten badituzte, erabiltzen hasi daitezke, bereziki haien harremanetarako ere baliagarriak baldin badira.

Proposamena hauxe da:

- Aukeratu egunero edo ia egunero errepikatu daitezkeen esaldi batzuk: 3 edo 4.
- Bi modutako esaldiak izan daitezke: jarduerarekin zerikusi zuzena dutenak edo egoera informaletarako esaldiak.
- Hezitzaile guztiok egunero esaldi horiek erabiltzen hasi. Behin eta berriz.
- Ohitura hartua duzuenen beste 3 edo 4 ikasi eta erabiltzen hasi.
- Poliki-poliki errutinazko esaldi asko erabiltzera iritsi gaitezke.

Jarduerarekin zerikusia duten esaldi adibideak:

Gosea adieraztekoak	Tripazorriak daukazu?
	Gosez amorratuta zaudete?
	Zulo handia daukazue tripan? Nolakoa?
	Gaur ere gosez etorri zarete?
Janariari buruz	Goxoa dago, baietz?
	Itxura bikaina dauka!
	Usain ederra du!

Jateko jarrerari buruz	Zergatik jan behar da ondo? Sasoian egoteko.
	Eskas ari zara gaur. Eskastuta geratuko zara.
	Kontuz mingaina erre gabe, beroa egongo da oraindik.
	Zuk baduzu ganora: koilara bete eta ahoan sartu. Gogoratzen?
Janaria hartzen dutenean	Ez izan begiluzea. Neurrian hartu.
	Platera goraino betetzen baduzu, gero dena barrura.
	Etxeko araua: denetik probatu behar da. (Batzuetan erabili eta gero galdera soilik: Zein da etxeko araua?)
	Badakizue: ez kexatu, eta lehendabizi dastatu!
Dinamikari buruzkoak	Janaria jaisteko jolastera joango zarete?
	Txukun utzi mahaia, asko pozten nauk horrek!

OHIKO ESAMOLDEAK: HIZKERA INFORMALA

Badira jarduerarekin zerikusi zuzena ez duten baina askotan erabiltzen diren esaldi batzuk. Bai jantokian eta baita atsedean tarteetan ere. Egoera horietan haiek gaztelaniaz erabiltzen dituzten errutinazko esamoldeen ordezkoak proposa ditzakegu eta hezitzaileok behin eta berriz erabili.

Hauek adibide batzuk. Baina osatu zuen zerrenda!

Nekea adieraztekoak	Nekaporratuta zaudete?
	Porru eginda nago
	Leher eginda zaudete?

Animoak ematekoak	Eutsi goiari
	Primeran ari zarete!
	Hori da sasoia!
Adarra jotzekoak	Hau da xelebrea!
	Barrez lehertuko naiz!
Lotara joaterakoan (haur txikiekin)	Kremailera itxi
	Bolon bat eta bolon bi, isil isilik nago ni (abestu)
Bestelakoak (nerabeek erabiltzen dituztenak)	"¡Qué pereza!" ren ordezkioak: hau nekea, hau nagikeria, hau alferkeria...
	"¡Que asco!" "¡Qué basura!" "¡Está prodrido!" ren ordezkioak: hau nazka, hau itxura penagarria, hau da kiratsa, hau botagura...
	"Cenutrio" ren ordezkioak: kalamidadea, ez izan baboa, hau da gauza ahula...

Hezitzaileok esamolde hauetako batzuk aukeratu eta errutinaz erabiltzen hasten bazarete haurrak eta gazteak ere has daitezke erabiltzen. Aukeratu gutxi batzuk eta hasi guztiok egunero erabiltzen, eta poliki-poliki esaldi berriak txertatu.

HIRUGARREN ATALA: ZENBAIT AHOLKU ETA TRESNA

ZER EGIN ZAILTASUNEN AURREAN

Partaide batek euskaraz hitz egin nahi ez badu?	Euskaraz hitz egiteko zailtasunak badauzkate?
- Ez hasi mila azalpen ematen: guk euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu. Besterik ez. - Zergatik dio hori? Arrazoiak ulertzen saiatu. Seguruenik ez du euskara egoera eta bizipen positibo askorekin lotzen. Euskararekin harremana ez da handia izango. - Lagundu euskara asko eta gustura erabiltzen. Horretarako elkarrizketa asko sortu harekin eta errefortzu positiboak ere askotan ematen ahalegindu.	Zailtasunak gainditzeko, euskara erabili egin behar dute. - Elkarrizketa asko sortu beraiekin. - Elkarrizketa horietan ereduak emanez lagundu: esan behar duten hori guk ere esan errepikatzeko aukera izan dezaten. - Erabili gorputz hizkera eta mimika. - Errefortzu positiboak askotan eman: ahalegina egin behar dute euskaraz adierazteko, baloratu ahalegin hori.



Euskaraz ulertzen ez duen norbait taldean badugu?	Nire euskararekin ziurtasunik ez badut?
- Azalpenak euskaraz eman eta ez dakienari gazteleraz. Aurretik berari azaldu horrela jokatu dugula eta bera ere partaide izatea nahi dugula. - Hizkuntza errutinak progresiboki euskara hutsean eman. <i>Dena jaso/recoged todo</i>. Bi-hiru egun segidan horrela eginda gero, euskara hutsean erabil dezakegu. - Galdera itxiekin jokatu: <i>kanpora joango gara, bai? Kanpora joango gara. Ados? Ederki!</i> - Eta hauei ere errefortzu positiboak eman	- Partaideentzat eredu bat zara: kosta egiten bazaizu ere, egizu euskaraz. - Azalpenak aldeztu aurretik prestatu - Behar baduzu, laguntza eskatu ingurukoei - Aisia jarduera garatzeko eta euskara sustatzeko hartu zaituzte, aurrera ba! Hezitzaile ona zara!
Hezitzaileok gure artean gaztelaniarako joera badugu?	Gurasoei euskara erabiltzeko?
- Hitz egin eta adostu euskaraz ariko zarete. - Elkarri baimena eman erdaraz ari bazarete, zuzentzeko. - Erronka gisa planteatu dezakezue: saiatuko gara? Sartuko dugu dinamika bat tarteko? - Kontuan izan: eredu zarete. Jardueran zehar zuen artean ez baduzue euskaraz egiten, ez da erraza ikasleen artean erabilera sustatzea.	- Lehen hitza beti euskaraz. - Seme-alabekin nola egiten duten ikusi eta euskaraz ari badira, zuek ere egin euskaraz beraiekin. - Haurrekin eta gazteekin euskaraz ari garenez, hori baliatuz beraiei ere gauza batzuk euskaraz esan. Euskaraz erantzuten badigute edo ondo ulertzen badigute, egin euskaraz! - Euskaraz ez dakitenekin, agurrak eta errutina linguistikoak euskaraz.

BALIABIDE INTERESGARRIAK

Interneten hainbat baliabide aurkitu daitezke tresna lagungarri moduan erabil daitezkeenak. Entrenamenduak eta saioak euskaraz prestatzeko zailtasunak daukazu? Jarduerako hizkera teknikoak ez duzu ongi menperatzen? Giharren izenak nola dira euskaraz? Nola idatzi gurasoen baimen-idazkia? Euskarazko antzerki testurik bada? Udalekueetan eguraldi txarra izan eta euskarazko filmak jarri nahi badituzue. Non eskuratu euskarazko karaoke, abestien partiturak? Besteak beste, ondorengo web orrietan topatuko dituzu zenbait eredu.

AISI, KULTUR BALIABIDEAK	
Antzerki testuak	www.teatro-testuak.com
Abestiak, karaokea 	www.txantxangorria.eu www.kantuan.net/ www.badok.info
Ipuinak entzuteko	www.etxegiroan.com
Jolasak 	www.aisia.net/jolasak
Marrazki bizidunak	http://marrazkiak.euskal-encodings.com/
Filmak	www.eitb.com/eu/kultura/zinema-euskaraz/
Webguneak (Ipuinak, jokoak, kanta, marrazki fitxak, eskulanak...)	www.txiki.net/ www.emangiltza.com www.childtopia.com
Aldizkariak 	www.gaztezulo.com www.karramarrodigitala.com www.irrienlagunak.com www.aiurritxiki.com/
Hitz jokoak	www.xedera.com

KIROLERAKO BALIABIDEAK


Kirolerako entrenamendu fitxak



<http://www.kirolaeuskaraz.net/bestelakoak>

- Eskubaloia: hasiberri eta benjaminentzat
- Saskibaloia: benjamin eta hasiberrientzat
- Futbola: hasiberri eta benjaminentzat
- Sofbola: hasiberri eta benjaminentzat
- Gaztetxoentzat futbol fitxak
- Saskibaloiko arbitratze lana eskola mailai egokitzea

Kirolerako material didaktikoa



<http://www.gorputzheziketa.net/>

- | | |
|-----------------|-----------------------|
| • Euskal pilota | • Badminton |
| • Colpbola | • Gorputz adierazpena |
| • Aerobika | • Akrosport |
| • Irristaketa | |

<http://eskupi.blogspot.com.es/p/euskal-pilota-irakaskuntzan.html>


- Euskal pilota

<http://ikaspilota.blogspot.com.es/>

- Euskal pilota

KIROLERAKO BALIABIDEAK

Kirolerako material didaktikoa



<http://www.kirolaeuskaraz.net/fitxa-didaktikoak>

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Aerobika • Aquagym • Arraunketa • Atletismoa eta futbola • Beroketa, eskubaloia, errugbia, saskibaloia • Boleibola • Gimnasia erritmikoa • Gimnasioko ziklismoa • Herri kirolak • Hirugarren adineko gimnasia • Igeriketa • Judoa | <ul style="list-style-type: none"> • Karatea • Bestelako kirolak • Kirol egokitua • Natur ekintzak • Oinarrizko soin hezkuntza • Pilates • Saskibaloia • Surfa • Tenisa • Txirrindularitza • Xakea • Yoga eta erlajazioa |
|--|--|

Ariketa fitxak

<http://www.kirolaeuskaraz.net/nabarmenduak>

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Malgutasuna lantzeko • Aerobika | <ul style="list-style-type: none"> • Haur txikientzako ur jarduerak • Aquagym |
|--|---|

Kirol hiztegiak

<http://www.hiztegia.net/gaika.php>

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Eskubaloia • Saskibaloia • Kirola | <ul style="list-style-type: none"> • Gorputz hezkuntza • Kirol materialak |
|---|---|




KIROLERAKO BALIABIDEAK		
Kirol hiztegiak	http://www.kirolaeuskaraz.net/hiztegia-online	
	• Aerobika • Aquagym • Beroketa • Futbol entrenatzailea • Gimnasia erritmikoa	• Gimnasioko ziklismoa • Haur txikientzako ur jarduerak • Herri kirolak • Judoa • Karatea
Kirol aldizkariak	http://www.uribekosta.org/ukirolak	
Kartel eta errotuloak	http://www.kirolaeuskaraz.net/kartelak	
	• Arnasketa • Crawl eta bizkar igeriketa • Entrenamendu konbinatuak • Entrenamendu printzipioak • Gihar talde nagusiak	• Gorputz atalak • Hezurdura • Luzaketak • Uretan ibiltzen ohitzea • * Ohar-errotuloak
Kirol elkarten eskuliburua	http://www.kirolaeuskaraz.net/bestelakoak/kirol-elkarten-eskuliburua-2?p=2	
Kirol psikologiaren inguruko weba	http://kirolpsikologia.net/	
Jarduera fisikoaren eta kirolaren oinarriko terminologia	www.kirolaeuskaraz.net/argitalpenak/dokumentuak/jarduera_fisikoaren_eta_kirolaren_oinarriko_terminologia.pdf 	

BESTELAKOAK	
Hiztegiak	www.hiztegia.net/ • Eskularen hiztegia: http://casalabores.com/ikasten/hiztegia/
Katalogoa	www.katalogoa.org



HAUR ETA GAZTEEN JARDUERETARAKO HEZITZAILEENTZAKO GIDA

KIROLA | KULTURA | AISIALDIA | JANTOKIA



Hezitzaileon jarreraz ari gara:

Aisia, kirol, eta kultur jarduerak nola ikastetxeetako jantokietako jarduerak dinamismo eta bizipen positiboen iturri dira: lagundu haurrei eta gazteei hori guztia euskaraz bizitzen. Eta gustura aritu zeregin horretan!

Jolastu, dantzatu, marraztu, dastatu, jokatu:
GOZATU EUSKARA!

JOLASTU, DANTZATU, MARRAZTU, DASTATU, JOKATU...

EGILEAK: Iñaki Eizmendi Arsuaga eta Itziar Larzabal Bengoetxea
ebete hizkuntza zerbitzuak

ebete

LAGUNTZAILEA: Vitoria-Gasteizko Udala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net